

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Xabier Urquiola Jimenez de Vicuña karrerako funtzionario izendatzea Barrundiako Udaleko mantentze-lanetako peoi lanposturako

Alkate-udalburuak, 2024ko apirilaren 19ko 231 erabakiaren bidez, honako hau onartu zuen:

LEHENA. Xabier Urquiola Jimenez de Vicuña karrerako funtzionario izendatzea Barrundiako Udaleko mantentze-lanetako peoi lanposturako (administrazio bereziko eskala; azpieskala: zer-bitzu bereziak), 2024ko apirilaren 21eko ondorioekin.

BIGARRENA. Karrerako funtzionario izendatutako pertsonak egutegiko hogeita hamar eguneko epean jabetu beharko du karguaz, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, udal-idazkaritzan agertu beharko du.

Epe hori igaro eta ezer egin ez bada, lanpostuari uko egiten diola ulertuko da, eta egindako jarduerak ondoriorik gabe geratuko dira.

HIRUGARRENA. Barrundiako Udaleko mantentze-lanetako peoien lan-poltsa sortzea hautaketa-prozesuko probak gainditu dituzten pertsonekin. Hauek izango dira:

NAN	IZENA
***0916**	Jose Ignacio Urrutikoetxea Garcia
***9061**	Joseba Koldobika Gonzalez Egileta
***8856**	Pablo Jausoro Saez de Camara
***3016**	Jago Txintxurreta Beitia
***8776**	Maria Antonia Ruiz de Larrinaga Ruiz de Ocenda
***9349**	Marta Atxaerandio Alesanco
***8226**	Sara Gonzalez de Matauco Lopez

Poltsa hori mantentze-lanetako peoiaren hautaketa-prozesuko 10. oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

LAUGARRENA. Ebazpen hau udaletxeko iragarki-oholean, udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea.

Ozaetan, 2024ko apirilaren 22an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA